

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko azaroak 12 • 155. zka.



Kultur Errota martxan

Tartean "Bi luma" atxabaltarrak

Iturririk iturri: Azuzena Cardenal ■ Iritzia: Anjel Loidi ■ Kirolak: Jose Javier Barkero

B	O	W	N	D	C	A	R	I	S	M	A
H	E	M	I	T	S	U	B	I	S	H	I
A	K	D	S	Ñ	O	J	B	Y	U	G	E
H	R	M	S	B	S	8	O	F	D	C	Y
U	J	S	A	I	G	V	U	V	4	O	P
H	Y	U	N	D	A	I	L	O	Y	N	R
M	U	T	M	W	L	T	I	R	O	F	U
I	T	V	S	E	L	O	Y	H	V	O	L
C	K	I	E	V	O	L	V	O	L	R	E
R	B	T	J	U	P	Y	M	B	X	T	T
A	G	O	I	M	E	R	C	E	D	E	S
O	T	B	E	J	R	Y	F	R	M	E	L
P	A	C	C	E	N	T	K	E	R	I	U

Aurkitu itzazu sei
AUTO MARKA
desberdin...

Ez jarraitu begira,
zatoz Aldibi-ra!



Aldibi autoak, S.A.



MERCEDES
Izar autoak, S. L.

VOLVO

Auto Suecia



GALLOPER

Almovil, S.L.



HYUNDAI


Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxe: 943 79 65 65

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE



Zeintzuk osatu beharko lukete Euskal Gobernua?

Alberto Perez

(Langilea)

Nik uste dut hemengo jendeak, Euskal Herriaren alde egingo dutenek osatu beharko luketela. Euskara, intsumisioa, euskal presoak,... horrelako gaietaz arduratuko direnek.



Mertxe Vilchez

(Langilea)

Garrantzitsuena denak ados jarri eta herritarrei laguntzea dela uste dut. Burugokeriak eta haundiusteak alde batera utzi eta herritarrei lagunduko dietenek osatu beharko lukete.



Sole Uribetxebarria

(Jubilatua)


Politikari buruz ez dut ulertzen, baina gu euskaldunak izanik agintariak ere euskaldunak izan beharko lirartekeela uste dut.



Jose Antonio Ortiz de Mendibil

(Langilea)

Euskal Herriko taldeek. Hemengo arazoak bertako taldeek hobeto konponduko ditzutela uste dut.



e s k u t i t z a



EGINGO DUGU martxan

Orain aste gutxi dela esaten genuen 5 milioi eta erdi biltzea tokatzen zaigula Atxabaltarroi, eta esan genezake momentu honetan ia lortzeko atarian gaudela eta gainera ziur gaude lortu ere lortuko dugula kopuru hau.

Benetan esan beharra daukagu jendearen erantzuna ezin hobea izaten ari dela. Batzuk akzioaren jabe eginaz eta beste batzuk ahal duten aportazioak egiten; haundiagoak edo txikiagoak hemen denek balio dute eta denak benetan berdin eskertzekoak dira.

Euskal Herri osoari dagokionez, orain aste bete 1.000 milioiren erdia gaindituta zegoela esan genezake eta guzak horrela joanda, datorren urte hasieran egunkari berria gure eskuetan izango dugulakoan gaude.

Beste batzuetan bezala, oraingoan ere, Atxabaltarrok geure maila emango dugu


EGINGO DUGU kanpaina honetan. Zeueri esker *ingo juau* seguru asko, eta ia datozen egunetan *in juau* esateko moduan garen.

Azkenik, azaroaren 29an, Donostian, Anoetako Belodromoan, kontzertu erraldoia antolatu dela EGINGO DUGU kanpaina honen alde, adierazi nahi dizuegu. Bertan Mikel Laboa, Lluís Llach, Anje Duhalde eta beste hainbat euskal kantari izango dira. Sarrerak, 2.000 pezetatan Urbaltz, Arlutz eta Zاراia tabernetan jarriko dira salgai.


Ekinez egina EGIN berria egingo dugu!
Esker mila,

Aretxabaletako

EGINGO DUGU



PLATAFORMA



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzaila:** Janete Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigráf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta

Mitch-en mezua

Hiruatzek Nikaraguan hasi berri duen proiektua ere bete betean harrapatu du

Honduras, Nikaragua, El Salvador eta Guatemalako herriek une larriak bizi dituzte, dakizuenek. Mitch hurakanak ezin zuen hondamendi ikaragarria sortzeko leku aproposagorik aurkitu: oso azpiegitura eskasak, pobrezia latza, baliabide ekonomikorik eza... Ondorioa? 20.000 hildako baino gehiago (35.000 izan daitezke); ehundaka mila pertsona etxerik gabe, jatekorik gabe, izurriten esku...

Nikaraguako egoera

Nikaraguan konkretuki 4.000 pertsona baino gehiago hil dira eta 7.000 baino gehiago desagertu; azpiegituren %70 baino gehiago deseginda geratu da eta 300 errepide baino gehiago eraman dituzte ibaiek; urte amaieran bildu behar zen uzta erdia baino gehiago galdu da; 500.000 kaltetu baino gehiago daude eta 200.000 herritarrek dena galdu dute; toki gehienetan ez dute ur edangarririk eta hasi dira jada lehenengo izurrite kasuak agertzen: kolera, malaria, dangea... (ikaragarriena heltzeko dago oraindik); lurralde asko inkomunikaturik daude...

Condega ere inkomunikaturik

Condega da Nikaragua iparraldean inkomunikaturik dagoen herrietako bat. Dozena bat atxabaltar egon gara bertan azken urteotan eta eskerronez itzuli izan gara Atxabaltara, zeukaten apurra gogo onez eskeini izan baitigute beti: etxe zaharra, taloa, kafe beroa, kantu alaiak eta umore ona. Gaur ez daukate apur hori ere. Herri osoa ur azpian geratu da, etxeak inundatuta, uzta galdua...

Zer egin ote dute hori merezi izateko? Lehenik 40 urte estatubatuarrek finantziatutako gerran, ondoren gero eta pobrezia larriagoan eta orain hau? Ba ote du honek guztiak gurekin zerikusirik?

EEBBek eragin zuten hainbeste gerrate eta sufrimendu; hauek eta men-debaldeko herrialde aberatsek haien egoera ekonomikoan eta gobernua hartzen duen politika neoliberallean era-



Laguntzeko modu onena GKEen bidez egitea da

giten dugu, haiekiko dugun harreman komertzial eta ekonomiko desorekatuaren bidez, ezartzen diegun kanpo zor itotzailearen bidez, etab. Zerikusi handia dugu haien azpiegiturak hain eskasak izatearekin eta ondorioz, han gertatzen diren lurrikara eta hurakanek beste lekuetan ekartzen ez dituzten ondorio larriak eragitearekin. Bestalde, baliteke herrialde aurreratuok sortzen dugun kutsadurak honelako fenomeno atmosferiko bortitzekin zerikusia izatea ere. Beraz, haien egoerarekin zerikusi handia dugu, ez izan zalantzarik.

Pobrezia konponbidea

Pobrezia konponbidea ez da erraza, denok dakigu. Lehenik kanpo zorra "barkatu" beharko litzaieke eta, gaitasun exekutibo duen nazioarteko eradunde bat sortu, berdintasunezko nazioarteko harremanak helburu izango lituzkeena. Gure gobernuen eta enpresen jokabide aldaketa hau, ordea, herritarrok bakarrik lortu dezakegu gure erosketa, jokabide, botu emate eta antolaketa sozialen presioaren bidez. "Haien" bizi-maila duina izatea nahi badugu, gutako bakoitzak "geure" ongizate eta kontsumo maila, zentzuduna bihurtu beharko dugu.

Baina bitartean, gaur, gure herriarekin hainbeste harreman izan duen

herrian milaka lagunek premiazko laguntza behar dute. Gure esku daude. Zenbait gobernu eta erakunde dirulaguntzak bideratzen ari da, baina Nikaraguan behintzat gobernuak zentralizatzen du jasotzen duen laguntza guztia, udaletxe eta GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde edo ONG)en bidez bideratu beharrean eta egoera larrian dauden lurralde eta pertsona asko laguntzarik gabe geratuko da.

Laguntzeko modu zuzen eta segurua GKEek eskeintzen du. Eta hori da Hiruatzek kasua. Hasi berria genuen Condegako familia pobreei laguntzeko proiektua hango APC GKEarekin eta hortarako bidalia genuen dirua larrialdi egoeran bizirik irauteko erabiliko dute. Horretarako beste partida handi bat bidali nahi genieke lehenbailehen eta atxabaltar guztioi laguntza eskatzen dizuegu, haien izenean, justiziaren izenean (dagoeneko atxabaltar askok eman dute premiazko lehen laguntza). Gero etorriko da berreraikitzen hasteko garaia eta orduan ere, zuen elkartasuna beharrezkoa izango da berriro.

Nikaraguarako premiazko laguntza zuzena, kontu korronte hauetan:

Euskadiko Kutxa: 1420012349

Gipuzkoako Kutxa: 0010754661

Xabier Sarasua, Hiruatzek izenean


Aretxabaletako eskola arteko X. Loramendi literatur lehiaketa

Lehen hezkuntzako eta DBHko ikasleei egiten zaie deialdia

Urtero bezala garai honetan, Loramendi euskara elkarteak Aretxabaletan bizi edo ikasten duten ikasleentzat literatur lehiaketa antolatu du. Aurtengoa, jadanik, X.a izango da eta antolatzaileen esanetan urtero urtero arrakasta haundiz burutzen den lehiaketa izaten da.

Lehen hezkuntza eta DBH

Bi atal desberdin egongo dira, bata lehen hezkuntzako eta bestea DBHkoa. Lehen hezkuntzako atal barruan beste bi maila egin dira, 2. zikloa eta 3. zikloa; maila hauetan D eredu eta B edo murgiltze ereduak ere bereiztu egingo dira. Hauek ipuina eta poesia landu beharko dituzte, 2 orrialdetako gutxienezko luzerarekin eta gaia librea izanik.



DBHn ere bi maila izango dira, 1. zikloa eta 2. zikloa eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango dute. Hauek Deba Garaiko nagusiei egindako grabaketak aurkeztu beharko dituzte kantu zaharrak, ipuin eta pasadizoak, ohiturak, ogibide zaharrak, ... Lanak audio zintetan aurkeztuko dira, 30 minutu baino gutxiagokoak izanik, eta horrekin batera grabaketari dagokion aurkibide bat din A-4 orri batean. Saria elkarrizketatu onenarentzat izango da.

Sariak

Lan guztiak euskaraz izan beharko dira eta pertsona berak bestalde, lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Aurkezteko epea abenduaren 18an bukatuko da. Sariak, berriz, 1.999ko urtarrilaren 21ean arratsaldeko 7 eta 8etan Loramendi Euskara Elkartearen lokalean banatuko dira. Lehen hezkuntzako bonotan emango zaie saria, dendentan trukagarriak eta denentzat egongo da. DBHkoei, berriz, maila bakoitzeko hiru onenei dirua emango zaie.

*Lanak
Loramendi
Elkartearen
lokalera
bidali
beharko
dira
abenduaren
18a baino
lehen.*

Durana kalean berriz apurketak

Durana kalean astebete eskas iraun du aparkatzea debekatzen zuen trafiko seinaleak. Jarri orduko apurtu eta bota egin du norbaitek azaroko lehenengo aste bukaeran. Honekin batera Duranako eserleku bat ere bere lekutik mugitu eta botata agertu zen, eta Herriko Plaza azpian dagoen iturria ere apurtu eta ura dariola utzi zuten. Astelehen goizean, hilak 2, berriz, udaltxeko langileak fin fin ibili ziren apurtutakoak bere lekuan jarten.

Espainiar armada herrian

Pasa den azaroaren 4an, eguaztena, hainbat helikoptero ibili ziren Aretxabaleta gainean burrundara haundia ateraz. Helikoptero hauetatik, Apotza-Etxebarri inguruan soldaduak jeitsi eta ondoren kaleetan ere ikusi zituen jendeak.

Udaltxearen esanetan, ez zeukaten maniobra hauei buruzko espiniar armadaren inolako berririk, ezta baimen eskaerarik ere. Euskal Herriko beste herri batzuetan ere antzeko gertaerak izan ziren.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Larrialdietako V. ihardunaldiak Deba Garaiko Eskualde Ospitalean

EKALMEK, Euskal Komunitate Autonomoko Larrialdi Medikuntz Elkarteak, urtero bezala larrialdi zerbitzuen ihardunaldiak antolatu ditu, bostgarrena. Aurtten, elkarte honetan dagoen Deba Garaiko Eskualde Ospitaleko larrialdi zerbitzuei tokatu zaie antolatzea eta hortan dihardute.

Herrialde batzutan larrialdi zerbitzua beste espezialitate bat bezala onartuta dago, traumatologia edo kardiologia bezalatsu. Euskal Herri eta Espainiar estatuan hori lortzeko lehenengo urratsak eman eta Larrialdietako Medikuntza Ziurtagiria lortzeko la-

nak martxan dira.

Iñaki Agiriano, Deba Garaiko Eskualde Ospitaleko larrialdi zerbitzuetako arduradunaren esanetan, ospitale barruan larrialdi zerbitzuek oso garrantzi handia dute "guk larrialdi batean ospitalera datorren guztia ikusten dugu, baita zein egoeratan datorren ere. Sarritan oso momentu gogorak pasatzen ditugu, eskerrak momentu pozgarriak ere izaten direla". Deba Garaikoa bezalako ospitale batek ihardunaldi hauek antolatzen dituen lehenengo aldia izango da. 18 urte baino gehiago pasa dira


larrialdi zerbitzuak martxan jarri zirenetik Arrasaten, beraz, ihardunaldi hauen antolaketarekin merezitako eskertza jasoko du. Ospitaleko langileentzat bestalde, erronka garrantzitsua izango da Euskal Herri mailako ihardunaldi hauek antolatu eta dena ondo ateratzeaz arduratzea.

Azaroaren 13an, Aita Menni ospitaleko areto nagusian izango dira hitzaldiok eta Euskal Herri osoko 250 mediku, erizain eta teknikari elkartuko dira bertan. Gai nagusiena, berriz, ospitale arteko garraioa izango da.



50 urteak ospatzen

69ko kintoek, hau da 1948an jaio eta aurtten 50 urte bete dituztenek, urriaren 24an afari goxoa egin zuten Taberna Berri jatetxean. Mende erdia bete dutela eta pozik agertu ziren eta seguru gaude bapo afaldu ostean hainbat dantza egingo zizutela.



LOGOPEDIA ZENTRUA

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea
Tel: 943 79 79 46
ARRASATE

Euskara-Normalizatzaile lanpostua

Egun erdiko kontratua
Bete beharreko baldintzak:

- Magisteritza agiria edo baliokidea
- Ega edo baliokidea

Instantziak aurkezteko epea: azaroak 20.
Non: Eskoriatzako edo Aretxabaletako udaletxean.

Baloratuko dena:

- Herri-administrazioan esperientzia
- Itzultzaile eskolako agiria
- Euskara irakasle lanetan esperientzia

4 H:E.



ORTOPEDIA ORTO LAGUN

Ondo ibili nahi al duzu?
Zuri laguntzeko gaude.

- Lanerako eskalapoikak (zuekoak).
- Bizkarra zaintzeko faja bereziak.
- Hanketarako plantilla bereziak.

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 943 79 89 34

T
X
i
L
A
R
R
A



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 943 79 44 28
ARETXABALETA

Haurren Ahotsa programa Unicef-en eskutik

Euskal Herriko haurrei bideratutako heziketa kanpaina da

Giza eskubideen 50. urteurrena dela eta Euskal Herriko Unicef batzordeak *Haurren Ahotsa* izeneko programa jarri du martxan. Kanpaina honekin, 1.989an Ginebran onartutako Haurren Eskubideen Aldeko Hitzarmena ezagutzera eman, bere esanahia zabaldu eta giza baloreen hausnarketa sakon bat egin nahi dira.

Haurrak eta gizartea orokorrean, haur eskubideei buruz informazio gehiago izatea helburu duen hezitze prozesu bat izango da eta haurrek parte hartzearen eskubidea praktikan jartzeko aukera izango dute.

Azaroaren 21ean bozketa

Haurrek dituzten kexa eta irizkiak ezagutzeko Euskal Herriko 8 eta 11 urte bitarteko haurrek, azaroaren 21ean bozkatzeko aukera izango dute. 382 hautestontzi ipiniko dira Euskal Autonomi Elkarteko 250 udalerritan eta haurrak, goizeko 11ak eta arratsaldeko 6ak bitartean, edozein gunetara hurbildu ahal izango dira. Boto txartela 12 eskubidek osatzen dute: nortasuna, familia, osasuna, heziketa, berdintasuna, babesa, partehartzea, ongizatea, bakea, elkartasuna eta haurrei lehentasuna ematen dien eskubideek hain zuzen. Bertan eskubide garrantzitsuena aukeratu eta hautestontzian ezarri beharko dute.

Manifestuaren aurkezpena

Haurrek egindako bozketan lorturiko emaitzak, haurren eskubideen alde lan egingo duen eta gizartea kontzientziatzeko balio izango duen manifestu batean jasoko dira eta Gabonetako Haurren Parkean aurkeztu. *Haurren Ahotsak*, erabaki politikoak hartzen diren tokietara ere, heldu nahi du eta horretarako manifestu hau lehendakari eta parlamentu berriaren aurrean aurkeztuko da.

Herriko umeak lanean

Aretxabaletako Kurtzebarri eskola 8 eta 11 urte bitarteko umeekin lanean ari da, *Haurren ahotsa* programa hau uler eta sakon dezaten. Horrela azaroaren 21ean bozkatzera joatean denek jakingo dute zer aukeratu eta zeri eman lehentasuna. Era berean mundu guztiko haurrek dituzten arazo eta ezintasunez jabetzen hasteko eta geroko gizon emakume zentzudunak izateko baliagarri izango zaie.

BOTO-TXARTELA

Nire ustez, bada eskubide bat gainerako guztiak baino beharrezkoagoa duguna, eta batez adierazten dut.

Adina: _____ Mutila Neska

Ikasletxoa: _____ Herria: _____

<p>1 <input type="checkbox"/> Nortasuna</p> <p>Naizen moduan errespetatua izateko eskubidea, nire nortasuna garatzekoa, nire sinismen eta tradizioen arabera bizitzekoa.</p> <p>2 <input type="checkbox"/> Familia</p> <p>Maite eta orientatzen nauden familia batean bizitzeko eskubidea, gurasoekin batera jarduerak burutu eta hainegandik bereiztasun ez izatekoa, nire ongizaterako beharrezkoa ez bada beharrez.</p> <p>3 <input type="checkbox"/> Osasuna</p> <p>Zainketa medikuak izateko eta bizitzaz-aztura osasungarriak garatzeko eskubidea, drogetarik libre eta polutu gabeko leku atsegin batean bizitzekoa.</p> <p>4 <input type="checkbox"/> Heziketa</p> <p>Bestekin batera bizitzeko eskubidea, zorianondu naizen eta ikasketak gogoz joaten naizen eskola bat izatekoa.</p> <p>5 <input type="checkbox"/> Jolasa</p> <p>Jolasteko denbora, lekuak eta jolastideak izateko eskubidea.</p> <p>6 <input type="checkbox"/> Berdintasuna</p> <p>Diskriminatua ez izateko eskubidea eta tratatara eta atentzio bereziak jasotzeko, behar izanez gero.</p>	<p>7 <input type="checkbox"/> Babesa</p> <p>Nire gorputza eta nire sentimenduak mindu ez diezazkidan eskubidea, tratu txarrik, laudorik, adota sexu-abusuak ez izatekoa, zapalduak ez izatekoa.</p> <p>8 <input type="checkbox"/> Partehartzea</p> <p>Informazio egokia jasotzeko eskubidea, beste haur batzuekin bildu eta parte hartzeko, eta nire irizkiak altxatzea hartuak izan daitezzeneko.</p> <p>9 <input type="checkbox"/> Ongizatea</p> <p>Nire gurasoek ni duintasunez garatu eta bizitzeko behar beste baliabideak eskuratu ahal izateko eskubidea.</p> <p>10 <input type="checkbox"/> Bakea</p> <p>Indarkeriarik gabeko gizarte baten bizitzeko eskubidea, elkartasunezko, toleantza eta adiskidetasunezko izpiritu batean bizitzekoa.</p> <p>11 <input type="checkbox"/> Haurrak aurrerik</p> <p>Erabakiak haurren premietan onarritu har daitezzen eskubidea.</p> <p>12 <input type="checkbox"/> Elkartasuna</p> <p>Herriek munduko haur guztien garapenean lagun dezaten eskubidea.</p>
---	--

Haurrek bozkatzeko erabiliko duten boto txartela

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

BENGOA URDAITEGIA


Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina



Ondo lan egin dezagun

Aretxagazetako aurreko Ale batean zebra pasu bateko maila jeitsiera bakoitzak 270.000 pezeta balio duela irakurri nuen. Seguruasko lehen arazo horiekin sentsibilizatu gabe geundelako orain akatsak zuzentzen ari gara eta horrek beti kostu bat dakar. Zuzentzea ondo dago, baina ez al da hobe eraiki eta egiten diren lan guztiak ondo egiten ari diren zaintzea?

Gaur egun eraikitzen dituzten etxe askori uren kanala ez diete teilatu hertzean jartzen, barrurago baizik. Horrek kanaletik behera geratzen den ura kalera jausiko dela esan nahi du, espaloietara jeisten den ura bikoitza izanik; baldin eta haizeak etxeen hormatan ezartzen ez badu, hormak zikindu eta margoa kenduz fatxada itsusituko duelarik. Orain urte batzuk arazo berbera egon zen Loramendi kaleko etxe batzuetan eta kanala apurtu eta etxeetara filtrazioak zeudelako aldatu egin zen. Orduko konponketa kontutan izan gabe akats berdinean erortzen ote gabiltza?

Kurtzebarri eskola aurreko hesian jarri zituzten barrote askok goiko zuloa zabalik daukate.

Jarri zirenean egurrezko takoak sartu zizkioten baina hauek euri, izotz eta eguzkiaren eraginez txikitu eta sarritan bere lekutik kanpo egoten dira. Haurrek zulo horietan hatzak sartu eta min har dezakete, kasurik txarrean hatza galduz. Haur bakar batekin posibilitate hori oso urrunekoa bada ere 100 haurrekin eta 500 barrotekin edozer gauza gerta daiteke. Konponbidea, berriz, ez dut uste hain zaila denik.

Gauza hauetaz konturatu banaiz ere bi adibide besterik ez dira, beste mila egon baiditezke antzeko egoeran, garai batean ondo egin ez eta orain konponketa eskatzen dutenak, bere kostuarekin noski. Gaur egindako akatsak hemendik hamar urtera (edo bira? Durana kaleko zorua...) konpontzen ibili ez gaitezen kontu eta ardura handiagoarekin lan egitea eskatuko nuke. Ez dakit noren ardura izango den, arkitektuena edo Udaletxearena baina elkarlanean gauzak hobeto egin daitezkeenaz seguru nago.

Anjel Loidi

**Zuzentzea
ondo dago,
baina ez al da
hobe eraiki eta
egiten diren lan
guztiak ondo
egiten ari diren
zaintzea?**



MEMESA

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea

Angelines

AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

IBARRA

ESTANKOA



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14
ARETXABALETA

Azuzena Cardenal

Zazpi hilabete kartzelan

Martxoan eraman zuten Caravanchelera eta urrian, hauteskundeetarako hain zuzen, utzi zioten etxeratzen. Oraindik ordea, 2 milioiko fidantza ordaindu gabe dauka eta lagundu nahi duenarentzat Euskadiko Kutxan kontu korronte bat dago zabalik.

Pozik badago ere etxean berriz, barruan utzitako lagunak darabilzki buruan eta ez ditu nolana ahaztuko.

- Espero zenuen herriak egin zizun ongi etorria?

- Espero bai, baina ez nuen uste hainbeste jende egongo zenik. Afaria ere oso ondo egon zen, baina denekin egon ahal izateko gehiegi, 200 bat izan baikin.

- Hona etortzean zer da lehengo egin gura izan zenuena?

- Etxean sartu eta ez ateratzea. Gogorra izan zen Gatzagainera heldu eta hainbeste jende nire zain ikustea, nik oraindik buruan kartzelako lagunak bainituen.

- Zazpi hilabete ostean nola moldatu zara hemengo erritmora?


- Oraindik ez naiz guztiz ohitu, lo gutxi egiten dut eta jendea mariatzen ari naiz. Poliki poliki ordea, moldatuko naiz, espexera ohitu nintzen, beraz, kalera egitea samurrago. Iku-sita dago denborarekin gizakia dena ohitu daitekeela.

- Zer egin duzu egun hauetan?

- Kartzelako kideen etxeetan egon naiz, baita herriko lagun eta familiarekin ere, amarekin, ... banuen horren falta. Datorren hilean, berriz, lanean hasiko naiz.

- Nolakoa da egun normal bat kartzelan?

- Nahiko monotonoa. Jeiki eta 8,30etan gosaria; 10etan gimnasia, futbito eta frontenisean ibiltzen gi-



“Oso momentu gogorra izan zen libre geratuko nintzela jakin nuena”

nen. Eguerdiko 1etan bazkaria eta 2-etan korreoa jasotzen genuen. 2,30-etatik 3,30etara txapau egiten ginen, bakoitza bere gelan sartu kontaketa egiteko; hau egunean hiru aldiz egiten ziguten. Arratsaldean patioan pasiatu eta kideekin hitzegin. Eguneroko gauza bera. Aste bukaerak bisitak dirrela eta ezberdinak izaten ziren.

- Barruan egon zarenean zer bota duzu gehien faltan?

- Askatasuna noski. Baita herriko berotasuna ere, karta eta bisitekin heltzen da, baina etxetik 400 Km.-tara zaudela pentsatzea gogorra da.

- Kartzelan izandako momentu onenak eta txarrenak?

- Txarrena komisaldegitik pasatzea. Onena, berriz, komisaldegitik kartzelara eramatean bertako kideek egindako ongi etorri eta mimoak.

- Zer da gehien eskertzen dena barruan?

- Korreoa eta bisitak, izugarri estimatzen dira.

- Lagun onak egin al daitezke?

- Hain egoera latzean jendea asko elkartzen da, dena elkarbanatzen genuen eta nik uste lagun onenak bertan egiten direla. Gu 18 preso politiko geunden eta oso talde batua osatzen genuen. Egia da egoera hau ez dela ematen kartzela guztietan, Caravanchel onenatarikoa baita.

- Zer da isolamendua?

- Txabola batean bakar bakarrik gotea, jana ere atepetik ematen dute eta bakarrik 2 ordutan atera daiteke patioa. Ni sei egunetan egon nintzen pankarta bat atera guelako.

- Noiz jakin zenuen libre geratuko zinela?

- Bezperan. Oso momentu gogorra izan zen, batetik pozik bestetik han geldituko zirenekin gogoratu eta triste. Orain ere benetan gogorra da, sentimendu kontrajarriak ditudalako.

- Esperientzia honen ostean aldatu al da zure pentsatzeko era?

- Ez, oraindik gehiago baieztatu eta finkatu da. Kolektiboa oso elkartuta eta barruan jendea oso gogor da goela ikusi dut. Horrek indarra eman dit.

- Nola ikusten duzu egoera politikoa?

- Itxaropenez baina oraindik lan asko dago egiteko. Ezker abertzaleak ezin du pauso gehiago eman, orain besteei tokatzen zaie eta EAJK du giltza garrantzitsua.

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Basabe jatetxea

Menu eta afariak

**BASABE
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Kixkor taberna

KIXKOR
taberna

Mitarte, 13 • ARETXABAETA

☎ 943 79 20 60

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABAETA

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABAETA

Tfnoa: 943 79 32 34

Express akeitegia

**Express
akeitegia**

zure gustoko giroa

Santa Kurtz, 16

☎ 943 79 23 43

Josu harategia


- Urdaitegia-Gozotegia
- kroasantegia
- Gertatutako janariak

Josu Harategia

Mitarte, 1 • ARETXABAETA

Tfnoa: 943 77 03 08


Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABAETA

Tfnoa: 943 79 85 57

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA

• *Panrika espezialitatea*

Solohaundi-8 ARETXABAETA

☎ 943 79 68 57

Bedarreta taberna

Bedarreta

Beti bezeroen zerbitzura

Otalora, 19 ♦ Tfnoa: 943 79 20 89

Jose Mari bodegoia

**Eguneko
menua**

Nafarroa, 6
Tfnoa: 943 79 20 45
Aretxabaeta

**Jose Mari
bodegoia**

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

**IZOTZ
TABERNA**

Amets taberna

AMETS

Taberna eta kafetegia

Iparagirre, 4 • 943 79 01 29

Aretxabaeta

Mitartegarai

Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa
ARETXABAETA
Tfnoa: 943 79 17 51



Dorleta taberna


Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABAETA

☎ 943 79 94 15

KULTUR ERROTA



ARTISTEN KULTUR IBILBIDE BERRIA

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkarien Topaguneak *Kultur Errota* deritzan egitasmoa jarriko du martxan azaroan. Proiektu erraldoi honen helburua honakoa da: Euskal Herriko kulturgile guztiei –hasi berri diren artistei zein ibilbide profesional luze bat dutenei– euren lana zabaltzeko zirkuitu bat eskaintzea.

Euskararen normalizazioan eragile izan nahi duen proiektu honetan 11 euskara elkartek jarriko dute eszenatokia eta erakunde zein enpresa desberdinen laguntza izango du.

Kultur Errotatik 25 artista inguru igaroko dira eta artista desberdinen kantaldi edota errezitaldiz gozatzeko aukera izango dugu. Dena den, Topaguneak azpimarratu nahi duenez, zirkuitu berri honetan belaunaldi berrien aldeko apostua egin nahi da. Hori dela-eta, euskara elkarteek zirkuitu honetan izango duten bultzatzaile lana oso garrantzitsua izango da; herri bakoitzean musikaren arloan hasi berri diren gazteei herritik kanpo euren eskaintza zabaltzeko aukera eman nahi baitzaie.


ARTISTEN ZERRENDA



Michel Ducau baionesa



Joseba Tapia lasarte-oriarra



Joxan Artze usurbildarra

Artxiboa: Egunkaria.



Xabier Muguruza irundarra



Mikel Urdangarin durangarra



Caroline Phillips baionarra

Azaroaren amaieratik aurrera 25 artista gitarra afinatzen, ahotsak fintzen edota, beste batzuren kasuan, testuak errepasatzen hasiko dira. Izan ere, egun horretatik aurrera 25 emanaldien bira hasiko da. *Kultur Errotaren* hegala martxan jarriko dira.

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkariaren Topaguneak euskaraz sortzen duten artistei zirkuitu kultural berri bat eskaini nahi die. *Ibilbidea* 11 euskara elkartek osatuko dute eta horietatik guztietatik igaroko dira Euskal Herriko hainbat abeslari eta olerkari.

Topaguneak jarriko du martxan *Kultur Errota*. Proiektu honen asmoa, euskara elkartearen kultur eskaintza aberasteaz gain, belaunaldi gazteei aukera berriak eskaintzea da. Hori da *Errotaren* dinamizatzaileek azpimarratu nahi dutena: "Profesionalen gune izateaz gain, oso garrantzitsua da *Kultur Errotak* belaunaldi gazteen aldeko apustua egitea".

Hitzak lehentasuna

Kultur Errotan hitza erabiltzen duten ekitaldiek izango dute lehentasuna eta, noski, gehienak euskaraz izango dira. "Argi dago kultur ibilbidea sortzean hitzari

garrantzi handia eman behar zaiola. Azken batean, *Kultur Errotak* Topagunea osatzen duten euskara elkartearen helburuan -euskararen normalizazioan- eragile eta laguntzaile izan nahi du". Halere, euskaraz ez diren emanaldiek ere izango dute lekua zirkuituan, "horrelakoetan, hizkuntz gutxituei emango zaie aukera, beste hizkuntzetako kultur adierazpenak jasotzeko aukera ona izan daitekeelako".

Tradizioa eta berritasuna

Kultur jarduera tradizionalak eta berriak uztartuko ditu egitasmo honek. "Dударik gabe, estilo guztiei eman nahi diegu aukera. Tradizionalak diren kultur jarduerekin batera, ideia berrien gune izango da *Errota*, proposamen estetiko desberdinen bilgunea; hartzaileak ohar daitezela euskal kulturaren esparrua zabala dela; formula modernoak badaudela eta berriak sortzeko ahalmena bada-goela".

Belaunaldi guztien gune

Topagunearen egitasmo berri honetan belaunaldi guztiak biltzeko ahalegina egingo da. Antolatzen diren emanaldiak publiko zabal batentzako izango dira. Dena

Zergatik Kultur Errota?

"Egitasmo honen helburuak kultur ibilbideak eskaintzea eta harremanak bideratzea dira. Ez soilik goitik datorren kultur mota, baita herri arnasetik jaiotak. Eta, artoa eta gariaren antzera, arnasa ere garatu eta finduko bada, eguneroko bizitzan benetan txertatuko bada, errotan eman beharra dago. Hortik kultur errotarena".

"Elkarte bakoitzak bere *errota* jarri beharko du martxan. Izen handiko kulturgileei plaza bero bat eskainiz eta tokian tokiko artistei aukera emanaz.

Kultur Errota, azken batean, euskal kulturaren osagai izan nahi du, Euskal Herri guztitik bere arto-haziak zabaltzeko nahi dituen kultur egitasmo berria".

den, gazteen eskaintzei nolabaiteko lehenatasuna eman nahi zaie, "batez ere, hizkuntz aldetik giza talde honek duen garrantziarengatik".

Lurraldetasuna irizpide

Euskal Herriko lurraldeen arteko komunikazioa erraztuko duen tresna izateko helburuarekin jaio da *Ibilbidea*. Lurralde desberdinetako tradizioa eta horietan dagoen eskaintza artistikoa ezagutzeko bitartekaria izan nahi du. Hori horrela izan dadin Iparraldeko zein Nafarroako artisten lanak ezagutzeko modua izango da proiektu hau.

Ilusioa eta gogoia

Topaguneak bi urte daramatza lanean eta denbora horretan euskara elkarte eta herri-aldizkari guztiak bilduko dituen gune bat izatearen alde lan egin du. *Kultur Errota* hori lortzeko beste pauso bat izango da eta Topaguneak indar eta ilusio guztiak jarri ditu *Ibilbide* horren alde.

Apustua, formato txikiko muntaiak antolatzea izango da, xumeak eta, aldi berean, beroak. Euskara elkarteek eskainiko dituzten espazioak txikiak izateaz gain, artista eta entzuleen arteko harreman zuzena eta gertukoa ahalbi-

deratuko dituen emanaldi-sortak jarri nahi ditu aukeran gune honek.

Eta emanaldi sorta horiek kultur munduan urte asko daramatzatenean edo hasi berri direnek osatuko dute. Guztira, 25 artista, alboetan azaltzen diren batzuk, hain zuzen ere.


Jazza, folka, dantzak, errezitaldiak, pailazoak... Estilo horiek guztiak emango diote mugimendua *Errotari*.

Izen ezagunek eskaintzen duten kalitatea ziurtatuta egoteaz gain, bidea egin edo egin nahian hasi berri diren taldeek ere zeresana eta zer eskainia badutela adieraziko da egitasmo honetan.

Errotaren babesleak

Kultur Ibilbide berri honek elkarte eta artista desberdinen oneritzia jasotzeaz gain, Elkar eta Eusko Jaurlaritzaren babesa ere izan du. Horrelako zirkuitu bati aurre egiteko ezinbestekoa izan da bi erakunde horien laguntza.

Dagoeneko Errotaren hegalak jarri dira martxan, eta *Errota* geldiezin dadin ur korrantea indartsua izatea besterik ez da falta.

 **Nerea Navarro**

**Andoni eta Oier
"Bi luma"**



Errota kulturala proiektuaren barruan sartutako talde atxabaltar bakarra da. Beraien esanetan proiektu honek mesede handia egingo dio artista euskaldun gazte askori, baina baita euskal kulturari ere. "Horrelako zerbait falta zela uste dugu. Oraindik proiektu berria bada ere, ondo ateratzeko osagai guztiak ditu eta horixe nahi genuke guztiok".

Aurkezpen ofiziala hilabete inguru Lasarteko Jalgi kafe antzokian izan zen eta erabat harrিতuta geratu ziren egin zieten harrera onarekin.

Estilo propioa dutela diote eta ez dute inorekin parekatzerik nahi. Bi ahots eta bi kitarra dira. "Letrak Jon Sarasuak egin dizkigu eta izarren euskal izenak aprobetxatuz gu kezkatzen gaituzten gaiak jorratu ditugu beraietan. Nahiko sujerenteak dira, bakoitzaren interpretaziora zabalik geratuz. Horretarako diapositibak lagungarri izan litezkeela pentsatu eta emanaldietan sartzea erabaki genuen".

Badakite Euskal Herrian musika egin eta hemendik bizitzea oso zaila dela, eta ez da beraien asmoa horrelakorik egitea. Maketa ateratzea ere buruan darabilte, baina aurrerago.

Hurrengo emanaldia azaroaren 26an Durangoko Berbaro tabernan izango da. Oraindik ez dakite noiz joko duten herrian, baina gabonak bitartean izango ote den itxaropena dute.

Kultur Errotan parte hartuko duten euskara elkarteak eta babesleak

Euskara elkarteak:

Eta Kitto (Eibar), AED (Arrasate), Berbaro (Durango), Laixan (Oñati), Elgoibarko Izarra (Elgoibar), Geu Gasteiz (Gasteiz), Jardun (Bergara), Loramendi (Aretxabaleta), Ttakun (Lasarte-Oria), Zuhatza (Deba), Zenbat Gara (Bilbo).

Babesleak:

- Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa.
- Eusko Jaurlaritza.



ETA HORIEZ GAIN...

- Juan Antonio Urbeltz (donostiarra), Patxi Kaleko (Txingudi bailarakoak), Ander Lipus (markinarra), Porrotx pailazoa (lasarte-oriarra), Petti (beratarra), Katalin Habans (Larresorokoa), Wonder Brass (bergararrak), Fanbaltxa (debarrak), Martinola (oñatiarrak), Arima Beltza (elgoibarrak), Iñaki Labaka (lezotarra), Kintetoa (bergararra), Urtzi Urrutikoetxea (bilbotarra), Iñaki Salvador (donostiarra), Mixel Etxekopar eta Maddi Ohienart (xiberutarrak), Tabu tabar (lasarte-oriarrak), Mai Gorostiaga (tolosarra), Itzaletik (azkoitiarrak), The Porter Sharp (irlandarrak).



Autobusean joan zirenek argazkia atera zuten lasterketa aurretik

Gero eta atxabaltar gehiago Behobia-Donostian

Aurtengo Behobia-Donostia honetako edizioan atxabaltarren partehartzea handia izan da, eta urtetik urtera igotzen doa gainera. Iaz esaterako 29 atxabaltarrekin hartu zuen parte eta aurtengoa, berriz, 37 izan dira 21 kmtako ibilbidea egitera animatu direnak. Hona hemen klasifikazioa:

144 Kepa Urria	1:13:32	3519 Iñaki Arenaza	1:39:13
719 Oier Etxebarria	1:22:28	3802 Javi Garcia	1:40:38
788 J.M. Beloki (Eskoriatza)	1:22:59	3982 Josu Urkia	1:41:25
789 Fernando Uribealzo	1:23:00	3988 Iñigo Gaztañaga	1:41:26
1088 Antonio Herruzo	1:25:30	3992 Javier Etxebarrieta	1:41:27
1342 Jesus Lonbide	1:27:19	4332 Jon Iregi	1:42:52
2100 Mikel Bengoa	1:31:37	4536 Angel Mari Etxabe	1:43:45
2295 Xabier Jausoro	1:32:54	4583 Mikel Uribetxebarria B.	1:43:59
2421 Joseba Gonzalez	1:33:35	5521 Juan Antonio Barato	1:47:54
2613 Kepa Antxia	1:34:38	5680 Jose Revuelta	1:48:42
2812 Luis Mari Azkargorta	1:35:33	5690 Floren Elortondo	1:48:44
2826 Jesus Eskibel (Esko.)	1:35:35	6551 Iñaki Etxebarria	1:52:23
2827 Miguel Uribetxebarria G.	1:35:36	6632 Imanol Luengo	1:52:51
6974 Manex Larrinaga	1:36:00	6638 Javier Mar	1:52:52
3012 Julen Larrinaga	1:36:39	6883 Txomin Landaluze	1:54:06
		6932 Javier Martinez	1:54:25
		7235 John Nelson	1:55:58
		7597 Mertxe Lopez	1:57:53
		7600 J. J. Irure	1:57:53
		8002 Martin Perez	2:00:05
		8675 Ainhoa Murgoitio	2:05:11
		8676 Aitziber Zufiria (Esko.)	2:05:12
		8682 Amaia Garcia	2:05:15
		8905 Anabel Aranzadi	2:07:17
		8962 Elena Llorente	2:07:56

Dorletako Amaren deialdia

Dorletako Ama txirindulari eskolak txirindularitzan hasi nahi duten 13 eta 18 urte bitarteko gazteei izena emateko deialdia luzatu die. Izen ematea Murubide, 5eko lehen solairuan egin daiteke, azaroa eta abendua bitartean asteartetan 7etatik 8etara.

Dorletako Amaren aurtengo kategoriak hauek ditugu: infantilak 1985 eta 1986 urteetan jaiok, kadeteak 1984 eta 1983 urte artekoak eta azkenik 1982 eta 1981. urteetan jaiok junior kategorian hartuko dute parte.

Aquagym ikastaroak ordutegi berria

Aquagym ikastaroak ordutegi berria du, goizez 9:45etatik 9:45etara eta arratsaldean 20:00etatik 20:30etara. Gainera dohai-neko saio bat egiteko aukera egongo da kirol hau zertan datzan ezagutzeko. Interesatuak kiroldegitik pasa daitezke.

Iñurrategi anaiak etxera bueltan

Datorren hilaren 19an itzuliko dira Iñurrategi anaiak eta taldekideak Chinatik bueltan, "Al filo de lo imposible" programarako grabaketak bertan behera utzi ondoren. Oraingoan ez dute helburua lortu, eguraldiak ez baitie batere lagundu. Oso egun lainotuak izan dituzte eta mendia bera ikustea ere ia ezinezkoa izan zaie.

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S.
COOP.

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

BEGIBO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

*Carmen
Fernandez*

ABOKATUA

Belorrieta Auzoa, n° 14 - 4° A
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: (943) 77 05 94
Fax: (943) 79 65 21

Jose Javier Barkero

Zazpigarren urtea Errealean

Errealean bere debuta egin ostean, ilusioz eta itxaropenez beteta azaltzen zaigu Jose Javier Barkero 19 urteko atxabaltarra. Bere ametsa era batean bete dela esan digu, baina oraindik badu itxaropenik Kraussen konbokatorian berriro ere sartzeko.

Aurten zazpigarren urtea du Errealean eta Sanse taldeko pitxitxia da hamar golekin.

• **Zer nolako esperientzia izan zen Errealarekin lehen mailan jokatzeko?**

Sentsasio berezia eta benetan gauza haundia izan zen. Bertako giroa ikustea eta Errealeko jokalaria ezagunekin jokatzeko amets bat izan da niretzat.

• **Lehen mailan jokatzeko, zer gauza positibo eta negatiboa suposatu du?**

Orokorrean dena positiboa izan da. Esperientzia zoragarria izateaz gain, jokatzeko mailan aldaketa nabarmena dago.

Alderdi negatiboan intimitatea galtzea dago. Lehen mailan jokatzeko duzunean jende guztiak ezagutzen zaitu.

• **Zein aldaketa nabaritu duzu Sansetik Errealera?**

Diferentzia haundia dago baina nik haundiagoa espero nuen. Bi aldetatik nabaritu dut desberdintasun hori, alde batetik, jokalarien kalitatea hobea da eta bestetik partidoen intentsitatea haundiagoa da.

• **Zure ezkerria hain arriskuetsua da?**

Hori esaten dute. Nik zorte haundia izan dut beti erdi eta aurrealdean jokatu baitut eta gure lana gehiago



“Errealean
jokatu
ondoren nire
ametsa
bete da”

nabaritzen da defentsa batek egiten duena baino.

• **Ezkertia zara?**

Futboleko ezkerreko hankaz askoz hobeto moldatzen naiz, eskuma ez daukat hain ona. Hala ere, eskuari dagokionez eskuma erabiltzen dut, nahiz eta txikitan ezkertia nintzen.

• **Sanseko denboraldia zer moduz doa, zenbat gol sartu dituzu?**

Oso ondo. Momentuz hamar partidutatik guztiak irabazi ditugu.

Nik hamar gol sartu ditut.

• **Erdialdean jokatzeko duzula ikusita ez al dira gol asko?**

Bai, horrek meritu gehiago du jakina. Nire lana paseak eman eta golak sartzea den arren, ni ez naiz aurrelaria eta alde horretatik oso ondo dago lortutako emaitza.

• **Zer da garrantzitsuagoa zuretzat gola sartzea ala pase on bat ematea?**

Batzuetan pase on bat ematea eta beste jokalaria batek gola sartzea, sentsasio hobea da norberak gola sartzea baino.

• **Hiru atxabaltar zaudete Sansen, gurea moduko herri batentzat asko da?**

Bai, kopuru haundia da eta gainera hirurok jokatzeko ari gara. Horretaz gain maila txikietan ere badaude beste atxabaltar batzuk.

• **Turismo ikasten diharduzu, nola moldatzen zara biak egiteko?**

Sakrifizio apur bat eskatzen du biak batera eramateak eta batzutan gogorra egiten da klasera joatea edo ikasten jartzea, baina horretara ohituta gaude. Klaseak arratsaldean izaten ditut eta entrenamenduak ere bai, beraz, bi ordutara bakarrik joan naiteke.

• **Nola ikusten duzu Errealean atzerritarrek egotea?**

Nik uste dut bertako harrobiko jokalaria askok atzerritarren kalitatea badutela, eta guk ere izan behar dugu goian jokatzeko aukera. Ez dut txarto ikusten atzerritarrek egotea, hauek diferentzia eta kalitatea markatzen badute, baina hori bai neurri batean. Iaz zazpi atzerritar izan zituen eta aurten bost. Jeisten joan beharko litzateke eta bertakoei bidea zabaldu.

Gaztaina, udazkeneko fruitu goxoa

Freskoek C bitamina dute baina oso astunak dira, erreek, berriz, kaltzio eta bitamina kopuru txikia eta kaloria ugari

Urriko fruitua da gaztaina. Urrian heldu eta bukaera aldera batzen da, beraz oraintxe da jateko garairik egokiena. Hemen inguruan, Leintz Gaztaza eta Aramaixon aurkitu arren gaztainondo gehientsuenak, ez dago oso urruti joan beharrik batzeko. Gabonak arte kontserbatu ahal izateko, arantzadun oskol eta guzti mantentzen dira kanpoan iraz estalita. Betidanik jan izan den fruitua da, gordinik, egosita, danbolinean erreta...



Urrian heldu eta azkenetan batzen da gaztaina.

GAZTAINA ETA RONEZKO PUDINA

OSAGAIAK:

- 600 gr. gaztain
- 80 gr. azukre
- bainila adartxo bat
- 50 gr. gurin
- ron kopatxo bat
- 4 arraultza
- 50 gr. ogi birrindu
- 1/4 bat esnegain harrotu

JARRAITU BEHARREKO PAUSUAK:

Gaztainak ur hotzetan jarri gatz apur batekin eta 45 minutu inguruan egosi. Ondoren, ur honi azukre goilarakadaxo bat eta bainila adarra bota eta gaztainak ondo egosita dandenean bigarren azala kendu eta irabiagailutik pasatu.

Gaztaina purea, gurinez bigundu eta azukre ugariz goxotzen da. Honi arraultze gorringoak banan banan gehitu behar zaizkio, baita ron kopatxoa ere.

Arraultze zuringoak elur punturaino harrotu eta poliki poliki aurreko pureari nahasten joan behar zaizkio. Pure hau, gurinez igurtzitako moldean jarri eta ogi birrinduz haustu, moldean erabat bete gabe labean igo egiten baita. 35 minututan labean eduki eta horratz batez ondo eginda

dagoen frogatu. Hoztu ondoren jan ohi da esnegain harrotua gainean jarrita.

TXOKOLATE ETA GAZTAINAZKO PASTELA

OSAGAIAK:

- 500 gr. gaztain
- 100 gr. azukre xehetu
- 100 gr. gurin
- 100 gr. txokolate

JARRAITU BEHARREKO PAUSUAK:

Gaztainei azala kendu eta ur irakinetan sartu, 45 minutu inguru, bigarren azal fina kendu ahal izateko. Azal hau kendu ostean esnetan egosi ondo bigundu arte. Zertxobait lehortu eta pure egiteko tresnetik pasatu. Hoztu aurretik, gurina gehitu ondo nahastuz eta ondoren birrindutako txokolatea eta azukre zehetua gaineratu. Ondo nahastu dena krema fin bat lortu arte.

Aurretik gurinez igurtzita dagoen eta azpian papera duen moldera bota egindako krema. Labean 25 minutu inguru eduki eta hoztu ondoren jateko gertu egongo da.

GAZTAINA ETA TXOKOLATEZKO MOUSSA

OSAGAIAK:

- 500 gr. gaztain
- 200 gr. esnegain likido egiteko txokolate tableta erdi
- 25 gr. gurin
- 2 azukre goilarakada
- kafe goilarakada bat

JARRAITU BEHARREKO PAUSUAK:

Gaztainei azala kendu eta ur irakinetan egosi bigarren azala kendu arte. Garbitu ostean egosten jarraitu ondo bigunduta egon arte eta gero txinotik pasatu purea lortzeko.

Maria bainuan zatitutako txokolatea desegin eta gurina jarri eta ondoren azukrea eta 2 edo 3 goilarakada uretan disolbatutako kafea gehitu; krema fin bat lortu arte irabiatu.

Txokolate hau gaztaina pureaz eta esnegain harrotuaz nahasten da. Bukatzeko azken nahaste hau kopetara bota eta hozkailuan eduki jateko ordurarte.



“Los Ríos”era begira

Acción Católica edo antzeko talde bateko neska gaztetxoak dira, 14-18 urte besterik ez dituzte, argazkia 1949ko azaroan ateratakoa baita. “Los Ríos” aldizkaria 1948an sortu zen (aurten bete dira 50 urte euskal mixiolariak bertara joan zirenetik) eta argazkia, Los Ríos-en, Ecuadorren, zeuden mixiolariei bidaltzeko atera zuten, horregatik ikusten zaie aldizkaria eskutartean. Bai dotore jantzi ere neskatxo gazteok argazkirako!

Argazkian goitik hasita ezkerretik eskumara: **Arantza Uribetxebarria** (aurrean), **Garbiñe Gastañaga**, **Amaia Antxia**, **Ana Mari Ibarzabal**, **Josune Urcelai**, **Maria Luisa Urrutia**, **Josune Lopez de Armentia**, **Agustina San Miguel**.

Nekane Arenaza, **Jasone Uribesalgo**, **Julita Gonzalez**, **Dunixe Zuazabeitia**, **Kontxi Olazabal**, **Juanita Axpe**, **Miren Urreta**, **Miren Igartua**.

Mertxe Arkauz, **Kasilda Gastañaga**, **Mari Erce**, **Mari Karmen Arkauz**, **Maria Rosario Rodriguez**, **Justina Bengoa**.

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 943 79 17 53
ARETXABALETA



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

LANA

◆ **Euskara-Normalizatze lanpostua.** Instantziak aurkezteko epea: azaroak 20 Eskoriatzako edo Aretxabaletako udaletxeetan.

◆ Majisteritza egin duen pertsona batek **klase partikularrak** emango lituzke. Tfnoa: 943 79 06 81.

◆ **Zerbitzaria** behar da. Ahal dela euskalduna eta emakumea. 943 79 16 68 telefonora deitu.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

Kortinagilea.
Ref.13694/4. Gasteiz.

Erosketa saileko arduraduna.
Ref. 13935/2. Donostia.

Mantenimenduko teknikaria.
Ref. 13909/2. Durangaldea.

2 elektrizitate instalatzaileak.
Ref. 13751/1. Urretxu.

Manparen montatzailea.
Ref. 13761/2. Gasteiz.

Komertzial ordezkaria.
Ref. 13971/3. Bilboko enpresak Alemaniako egoitzarako.

◆ **Lan eskaintza publikoak**

Administrari laguntzailea. Ibarako Udala.
Titulazioa:OHO edo baliokidea, eta 2 H.E.
Epea: 98/11/16.
Oinarriak: GAO 98/9/15.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora.

Dohainik da.

Zerbitzu anitzeko peoia, 2 lanpostu. Atarrabiako Udala.
Titulazioa: OHO edo baliokidea.
Epea: 98/11/18.
Oinarriak: NAO 98/10/19.

Zerbitzu anitzeko langilea. Ziardiako Udala.
Epea: 98/11/16
Oinarriak: NAO 98/10/16

Menpeko langilea. Korteseko Udala.
Epea: 98/11/18
Oinarriak: NAO 98/10/19

DENETARIK

◆ Gorpil aulkirik, taka-takarik edo makulurik egoera onean eduki eta ez badituzu behar, beste pertsona batzuk horren beharrean egon daitezkeela pentsa ezazu eta deitu hurrengo telefono zenbakira 943 77 03 46 / 77 12 37 (Bego Falces, Osakidetza gizeko laguntzailea).

ETXE BIZITZA

◆ Pisu bat erosi nahi da Aretxabaletan berehala betetzeko. 943 79 32 92 telefono zenbakira deitu.

◆ Bedarreta kaleko garaje bat enkantera atera du Aretxabaletako Udalak milioi eta erdi pezetatan. Eskariak udaletxean aurkez daitezke.

LEHIAKETAK

◆ **Aretxabaletako eskola arteko X. Loramendi literatur lehiaketa.** Loramendi Euskara Elkar-teak antolatua, bi atal egongo dira bertan. Lehenengo lehena hezkuntzakoa da eta honen barruan ere bi maila daude 2.zikloa eta 3.zikloa. Hauek ipuin eta poesiak aurkeztu beharko dituzte, gutxienez 2 orrialde idatziz eta gaia librean izanik.

Bigarren atala DBHKoei zuzendua dago eta hemen ere bi maila egongo dira, 1.zikloa eta 2.zikloa. Bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango dute eta Deba Garai-ko nagusiei egindako grabaketak aurkeztu beharko dituzte, kantu zaharrak, ipuin eta pasadizoak, ohiturak, ogibide zaharrak,... Grabaketak 30 minututik beherakoak izango dira eta horrekin batera grabaketari dagokion aurkibide bat aurkeztuko da.

Lan guztiak euskaraz izango dira eta pertsona berak lan bakarra aurkeztu dezake. Epea abenduaren 18an bukatuko da. Argibide gehiagorako deitu 943 77 09 70 ra.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28
ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 943 79 07 34/79 31 87

CONSUM EROSKI

*Orain arraindegia
eta okindegiaz, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 954 79 92 11
ARETXABALETA

Poeten urtaroa



Xarma goxoa dauka udazkenak. Mendi eta inguru guztiak kolorez jantzita uzten dizkigu. Zelai zabalak orbelez atondu eta zuhaixka guztiak, berriz, udaberrira bitartean biluztu. Udazkena poeten urtaroa dela esan ohi da. Udazkeneko hego haizea da poetei inspirazioa ekartzeaz arduratzen dena. Etor bedi hain beharrezkoa dudan hego haize hori.

Baina herrian, azkenengo boladan kirioak airean jarri dizkiguten pertsonen presentzia nabaritu dugu. Izan ere, azaroaren 4an espainiar estatuko armada maniobrak egiten ibili baitzen. Antza ipar haizearen eraginez, militarrek Atxabaltan agertu ziren jostailu eta guzti.

Ipar haize honek uste baino jende gahiagori eragin dio, azken asteotan telefonoz eginiko iruzurrak modan jarri baitira. Iruzurgileak (berak daki


nola) telefonikako dei guztiak gure kontura sartzen ditu. Iruzurgile hori parean tokatu ezker, ez da makala izango telefonikako faktura.

Albiste hobeak ere badauzkat eskuartean. **Ergiña Urzelai** atxabaltarra Hondurasera joan zen bertako komunitate bat alfabetatzen laguntzera. Honduraseko Ruinas de Copan herrira joan zen hain zuzen. Egun pare bat komunikatu ezinik egon zen arren, Mitch hurakanak ez omen du bere herria erabat txikitu. Berri ezin hobea hango egoera zelakoa den ikusita!

Munduaren beste aldean **Iñurrategi anaiek** eta "Al filo de lo imposible"ko taldekideek ez dute helburua lortu eta datorren hilaren 19an bueltan izango ditugu etxean. Oraingoan eguraldiak ez die batere lagundu euren asmoa lortzen, lainoa etsai nagusia izan dute eta mendia bera ere ia ez dute ikusterik izan.

Etorri naizen bezala gaurkoan ere banoa. Ikusi duzuen bezala, udazken honek danerako aukera ematen digu. Inspiratzeko, kirioak airean jartzeko, orbel artean etzanda egoteko... udazkena poeta edo ni bezalako sasi poeten urtaroa izan arren, jakin ezazue udazkena nahiz negua, udaberria nahiz uda ni hementxe izango nauzuela. Herriko berri eta albiste horiek agortu bitartean aurrera egiteko asmoz. Gero? gero sasipoetontzako hain preziatua den hego haize horren zain geratuko naiz.

Liburutegiko txokoa



Satorraren neguko ipuina

David Wood / Richard Fowler
Ttartalo, 1998

Honako hau jolasteko liburua da, azalean bertan Hesaten den modura. Satorra etxean dago lasai hartzak laguntza eskatzen dionean arratoiak bere gordelekuan harrapatuta geratu baitira elurrarengatik. "Ongi da" dio satorrak eta orrialde batetik bestera ibiliko da bizitza propioa duen sator hau arratoin gordelekura iritsi arte. Bidean zehar aurkituko ditu pinguinoak, krokodilo bat, elefantea eta abar., arratoiak aurkitzen dituen arte.

Ipuina oso sinplea da eta abentura apur bat ere badu animalia berezi batzuek gain. Ipuina eta jokoa da aldi berean eta mugimenduz beteriko liburua, urte batetik aurrera edo erabiltzeko modukoa eta ziur asko haurrak gustora erabiliko dutena, beti ere heldu baten laguntzarekin.

Joseba Lopez de Armentia

AZAROA

15
domeka

12
eguna

PROIEKZIOA

Murrukixok antolatua, "Pirineotan zehar oinez" Hizlaria: Migel Mari Elozegi. Arratsaldeko 7,30etan Zaraia Zineman.

MENDI IRTEERA

Murrukixok antolatua, Aiako haitzetara. Irteera goizeko 8,30etan partenoitik eta egun guztirako izango da.

VI. ARTISAU FERIXA LEINTZ GATZAGAN

Egun honetan hainbat artisauen produktuak ikusteko aukera egongo da Leintz Gatzagan goiz eta arratsaldean zehar.

13

eguakotxa

PROIEKZIOA

Murrukixok antolatua, "Dunagiri" Hizlaria: Mikel Zabaltza. Gaueko 10etan Zaraia Zineman.

MENDI BIZIKLETA IBILALDIA ESKORIATZAN

Txurdaren omenez. Irteera goizeko 9,30etan Eskoriatzako plazatik.

KONTZERTUA

Soziedad alkoholika, Iskanbila eta Ekon taldeak. Arrasateko gazte-txeak antolatua adierazpen askatasunaren alde, Musakolako kiroldegian.

18

eguaztana

HITZALDIA

Alzheimer-ari buruzko hitzaldia egongo da Basotxo jubilatuen elkarteko telebista gelan arratsaldeko 5etan.

14

zapatua

IV. MENDI BIZIKLETA MARTXA

Murrukixok antolatua, irteera Udalaitez ingurura egingo da goizeko 9etan.

KONTZERTUA

Leizarra Musika Eskolak Santa Zezilia eguna ospatzeko kontzertua antolatu du. Arratsaldeko 6etan Kurtzebarri eskolan izango da.

20

eguakotxa

FANTASIA ETA BELDURREZKO ZINE MARATOIA

Arrasateko Amaia Antzokian, gaueko 10etatik goizaldeko 3etara. Sarrera 600 pta. izango da eta aurkezlea, berriz, Tinieblas Gonzalez zuzendari arabarra. Eskeiniko diren filmak:

- Por un infante difunto
- Stephen King's the night flier
- How to make love to a woman
- Sex & violence
- Once upon a time in China and America
- Progeny

21

zapatua

KULTUR ERROTA

Xabier Muguruzaren kontzertua Arrasateko Amaia Antzokian gaueko 10etan.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Jose Arana Almen ikastolak antolatuta ipuin kontaketa, diaporama, ibilaldia, maskotaren pina eta txokolate jana izango dira arratsaldeko 4etan hasita.



BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

KRISTALDEGIA Herriko plaza, 8 behea 943 79 81 78 ARETXABALETA



Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53 ARRASATE

23-26

INTSUMISIOARI BURUZKO ERAKUSKETA ESKORIATZAN

Arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean Intsumisioari buruzko erakusketa egongo da Eskoriatzako kultur etxean.

25

eguaztana

BIDEO EMANALDIA ETA MAHAI INGURUA

Eskoriatzako intsumisio taldeak antolatuta intsumisioari buruzko bideo emanaldia eta mahai ingurua arratsaldeko 7etan kultur etxean.

26

eguna

HITZALDIA

Tril emakume taldeak "Emakumeen tratu txarrei" buruzko hitzaldia antolatu du azaroaren 26rako. Hizlaria **Nekane San Migel** abokatua izango da. Hitzaldia arratsaldeko 6,30etan izango da udaletxe zaharrean.

IKASTARROAK**BAINIKA ETA GANTXILO IKASTAROA**

Taldea berehala osatu nahiko litzateke ikastaroarekin hasi ahal izateko. Anima zaitzte eta izena ematera Kultur etxera hurbildu, hamarreko taldea egin bezain laster emango zaio hasiera ikastaroari.

**BEHARREZKO TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murrukixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 79 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

OPEL 

Zerbitzu Ofiziala

■ **Kotxe marka guztien konponketak**

■ **Zerbitzu guztiak**

Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 943 79 62 65
/79 20 86 Fax: 943 77 17 20 ARETXABALETA



Udaletxean hamabost urte daramatza, sei urte udaltzain bezala eta azken bederatzi urteak harreran. Telefonoa hartzea eta udaletxera datorren jendea atenditzea dira besteak beste bere lanak. Lanorduez gain familiak eta futbolak betetzen dute bere bizitzako zatirik gehiena.


- Udaltzain edo harrerako lana gustokoago?
Harrerakoa.
- Zein da zure lana udaletxean?
Telefonoa eta jendea atenditzea eta hauek eskatzen dituzten eskariei erantzutea.

“Nire bizioa futbola da”

- Zertara etortzen da jendea?
Ziurtagiriak eskatzera, erregistroko datuak, obrak egiteko baimena eskatzera...
- Nork agintzen du udaletxean?
Alkateak.
- Herritarren kezak zeuk entzun behar izaten dituzu?
Bai, askotan bai.
- Zein keza izaten dira?
Zarata eta zaborraren ingurukoak sarritan.
- Gogorra da harrerako lana?
Hasieran gogorra egiten da, jendea zugana etortzen baita kekatxera eta askotan oihuka. Gero ohitu egiten zara.
- Aldatuko zenuke lanbidez aukera izanda?
Ez.
- Zein etxeko lan egiten duzu?
Denak.
- Gogokoan duzuna?
Plantxa.
- Alabak izan zenituenetik egin izan ezin duzuna?
Orain ez daukat ezertarako denborarik.
- Seme-alaba gehiago bai?
Ez.
- Bizitzeko Aretxabaleta edo Arrasate?

- Aretxabaleta.
- Afiziorik?
Futbola eta kirol guztiak orokorrean.
- Biziorik?
Futbola.
- Zenbat ordu eskaintzen diozu futbolari?
Astebukaeretan ahal banu gehiago eskainiko nioke.
- Gabonak etxean ala kanpoan?
Etxean.
- Herriko telebistan zer ikustea gustatuko litzaizuke?
Herriko berriak eta herriko jendea.
- Adinik onena?
18 urte.
- Nabaritu duzu ordu aldaketa?
Ez.
- Zein egunkari irakurtzen duzu?
“El diario Vasco”, kiroltakoak...
- Zer du polita udazkenak?
Kolora.
- Asteburu bat pasatzera nora?
Mendira, Pirineotara adibidez baina hori bai hotel batera.
- Non egin zenuen soldadutza?
Jacan.
- Zein animalia edukiko zenuke etxean?
Etxean edukitzeko ez zaizkit animaliak gustatzen.

KOMIKIA



Mikel Arriabe



T textil agirrezabal A

Eskoriatza eta Aretxabaletatik urbanoan joanda AIT-ITV eta autobus geltokitik 100 metrora

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak



DENDA BERRIA!

Gotzon Agirrezabal

Tel./Faxa: 943 76 72 52

ORDUTEGIA

astelehenetik zapatara:
10:00-13:00 eta 16:00-20:00.



Amillaga 5 • BERGARA • Renault-en ondoan



eta

bai&by
land


**Bikote honek
zer esan asko
emango dizu...**

**INGELESEZ ETA
EUSKARAZ**

**CIM eta bai&by k hizkuntz
irakaskuntzaren munduko bikoterik**

erakargarriena, sendoena

eta osoena osatzen dute.



CIMek hizkuntz irakaskuntzako 25 urteko
eskarmentua, heziketarako empresa egitasmoa
eta zure edozein beharretara moldatzeko gai den zerbitzu
malgua eskaintzen du.

CIMen enpresa egitasmoaren bilakaera
logikoan oinarrituta, bai&by-k azken teknologi
baliabideak eta emaitzak bermatzen dizkizun sistema
dituen **ingeles eta euskara** ikasteko multimedia me-
todo modernoa eskaintzen du.

Araba hiribidea, 4 - Arrasate

Tel: 943 - 712055 - Fax: 943 - 712181

Olakua, 14 - Oñati - Telf: 943 - 716000 • E-Mail: empresas@cim-idiomas.com • <http://www.cim-idiomas.com>


¡ Ingelesa eta euskara ziztu bizian !



**Errezago oraindik:
Orain, lehen
6 kuotak
DOHAINIK**

**Zatoz probatzera eta
jolastu deabruarekin**

**Ausart
zaitez**



RENAULT

*** Frogatuz gero, CD bat lortuko duzu.**

MECA TAILERRAK

Tel.: 943 79 50 12 (Arrasate) / 943 76 40 68 (Bergara)